

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Eltziegoko Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planari

Udalbatzak, 2020ko irailaren 18an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea Eltziegoko Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planari.

Espedientea jendaurrean egon da hamabost egunez, iragarki taulan eta 2020ko irailaren 30eko ALHAOn (111. zk.) argitaratu zenetik aurrera, eta epe horretan alegazio, iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onetsizat jotzen da, eta testua osorik argitaratzen da.

Eltziegoko Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plana

Hitzaurrea

Eltziegoko Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plan honen oinarriak dira Funtzio Publikoa Eraberritzeko Neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarria eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 22. artikulua.

Horiek horrela, Eltziegoko Udalak, aurrekontu mugen barruan, eta bete beharreko baldintzak zehaztuta, planak onetsi ditzake Udaleko langileak aurretiaz erretiratzeko, bai zerbitzu aktiboan dauden karrerako funtzionarioak bai langile lan kontratudun finkoak, beti ere, ezarritako epean, gizarte segurantzaren araubide orokorrean ezarritako baldintzak betetzen badituzte borondatezko erretiro pentsioa jasotzeko.

Plan hori, aurrez, langileen ordezkariarekin negoziatu da, eta xedetzat dauka zerbitzuen eraginkortasun maila handitzea eta giza baliabideak optimizatzea, langileak eman beharreko zerbitzuetara egokitu ahal izateko, gastuari eusteko printzipioa kontuan hartuta.

Horretarako, udaleko langileentzako erretiro aurreratua sustatzen duten neurriak jasotzen ditu, baldin eta zerbitzu aktiboan badaude eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean borondatezko erretiro pentsioa jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Hona hemen arauak:

1. artikulua. Aplikazio eremua

Programa hau Eltziegoko Udaleko zerbitzu aktiboan dauden funtzionarioei eta langile lan kontratudunei aplikatuko zaie.

2. artikulua. Kontzeptuak, baldintzak eta bateraezintasunak

Plan honen ondorioetarako, kontzeptu hauek honela ulertuko dira:

– Erretiro aurreratua adinagatik: Murrizte koefizienteak eta konputagarriak diren konpentsazioak aplikatu eta gero, Gizarte Segurantzak langile bakoitzarentzat ezartzen duen ohiko adina baino lehenago gertatzen dena.

– Urterokoa: Kalte-ordainaren zenbateko zehatza zehazteko, hilabetetik beherako denbora zatiak hilabete oso gisa zenbatuko dira. Urteko zenbatekoa langileak erretiro aurreratua hartzean esleituta dituen urteko ordainsari gordinekin zenbatuko da. Hauek osatzen dituzte ordainsari horiek: oinarritzko soldata, antzinasuna, aparteko ordainsariak, destino osagarria, berariazko osagarria eta eskatzaileak jasotzen dituen plusak.

– Gutxieneko antzintasuna: Erretiro aurreratuaren primak eskuratu ahal izateko, Eltziegoko Udalean gutxienez hamar (10) urtez lan egin beharko da, egitate sortzailea izan den egunaren aurre-aurrean.

– Erretiro pizgarriak jasotzeko baldintza ezinbestekoa: Ordaindutako beste edozein jarduera egiteari uko egitea; horretarako, Gizarte Segurantzarekiko edo Ogasunarekiko egoerari buruzko txostenak aurkezteko eskatu ahal izango da, eta nahitaez aurkeztu beharko dira. Informazio hori aurkezteko betebeharra betetzen ez bada, kalte-ordainaren onuradunak udalari jasotako zenbateko osoa ordaindu beharko dio. Txosten horiek pizgarria kobratu ondorengo hamar urteetan eskatu ahal izango dira.

– Bateriaezintasunak: Erretiroagatiko kalte-ordaina jasotzea bateraezina da Gizarte Segurantzak edo dagokion mutualitateak edozein ezintasun mota aitortzearekin, baldin eta horren ondorioz langileak behin betiko baja hartzen badu Eltziegoko Udalean kalte-ordaina jasotzeko eskubidea sortzen duen egitatea baino lehen.

Egoera horrek berekin ekarriko du onuradunak jasotako kalte-ordaina udalari itzuli behar izatea.

3. artikulua. Indarraldia

Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Plan honen testu osoa ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean plana, eta indargabetu arte egongo da indarrean, hartatik eragotzi gabe erabaki daitezkeen aldaketak egitea, dagokion prozeduraren bidez.

4. artikulua. Erretiro aurreraturako arauak eta zenbatekoak

Erretiro aurreratuko kalte-ordainaren neurriez baliatzea eskatu ahal izango dute plan hau indarrean dagoen bitartean zerbitzu aktiboan dauden eta adinagatik borondatezko erretiroa hartzeko baldintzak betetzen dituzten Eltziegoko Udaleko langileek, edo Gizarte Segurantzako sistema publikoko erretiro kontributiboko pentsioa eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituztenek.

Eskaera erretirorako aurreikusitako data baino gutxienez hiru hilabete lehenago egin beharko da, udalak aldatutako Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetako langileen lan baldintzak arautzen dituen akordioan ezarritako modu eta baldintza berberetan.

Primaren zenbatekoa urteko ordainsari gordinak kontuan izanik kalkulatu da.

Kalkulu honen ondorioetarako, hileko soldata urteko ordainsari gordin osoaren 1/14 izango da.

Eltziegoko udalbatzak, plan hau onestearekin batera, onetsi du aldatzea indarreko "Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetako langileen lan baldintzak arautzen dituen akordioa UDALHITZ 2008-2010" delakoaren 96. artikulua (udal hau akordio horri atxiki zitzaion udalbatzak 2015eko uztailaren 31ko bilkuran hartutako erabakiaren bidez), eta honela geratuko da idatzita:

Primaren kopurua eskala hau jarraituta kalkulatu da, beti ere urteko ordainsari osoak erreferentziazat hartuta, eta urteko ordainsari hori hilabeteka hainbanatuko da –urte batetik bestera–:

ADINA	HILEROKO KOPURUA
5 eta 4 urte bitartean adinagatiko ohiko erretirorako	21
4 eta 3 urte bitartean adinagatiko ohiko erretirorako	17
3 eta 2 urte bitartean adinagatiko ohiko erretirorako	12
2 eta 1 urte bitartean adinagatiko ohiko erretirorako	9
1 urte adinagatiko ohiko erretirorako	6

5. artikulua. Aurrekontu baliabideak

Erakundearen urte bakoitzeko aurrekontu orokorrak, hasieran edo aurrekontu aldaketa egokien bidez, plana gauzatzearen ondoriozko betebeharrak betetzera bideratutako aurrekontu zuzkidurak jasoko ditu, plana indarrean dagoen aurrekontu ekitaldietan.

6. artikulua. Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskaerak erretiro aurreratua hartzeko adina betetzen den eguna baino hiru hilabete lehenago aurkeztu beharko dira, gutxienez. Eskaerarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

Gizarte Segurantzaren agiria, erretirorako adina zehazten duena, konpentsazioak edo koefiziente murriztaile konputagarriak aplikatu ondoren.

Udalak, gainera, egokitzat jotzen dituen Gizarte Segurantzaren txostenak eskatu ahal izango ditu, eskatzaileak ordaindutako beste jarduera bat ez egiteko duen betebeharra betetzen duela egiaztatzeko.

Eltziego, 2020ko urriaren 23a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE